



TOLOSALDEKO OSASUN ALORREKO LANGILEAK

Osasun-langileen (sendagileak, erizainak, fisioterapeutak, gerokultorak, zaindariak, laguntzaileak, administrariak...) ordezkariek gara, lan egin dugu edo lanean ari gara Osakidetzako zentroetan, EAEko osasun-zentro ez-publikoetan, anbulantzietan, 3. adineko egoitzetan, eta Tolosaldeko herrietan bizi gara.

Jakin dugu Osasun Sailak INVIZArekin (Asuncion klinika) sinatuta daukan hitzarmena 2016ko azaroan bukatuko dela, azken lau urte honetan indarrean egon eta gero.

Gure kezka agertu nahi dugu gaur egun *OSI Tolosaldea* ematen ari den osasun-arreta dela eta; izan ere, GU GEU, ETA GEURE FAMILIAK ERE BAI, OSASUN PUBLIKOAREN ERABILTZAILERAK GARA, ETA ONDO DAKIGU GAIAREN BERRI ADIERAZTEKO Osakidetzaren sareko ospitale publiko bat ezin dela konparatu Tolosaldean dagoena bezalako klinika pribatu-kontzertatu batekin, batik bat, kontuan izanda zer gabezia dituen:

1. Nabarmen txikiagoak dira osasun-langileen eta gaixoen arteko ratioak, baldin eta alderatzen baditugu kudeaketa publikoko eskualde-ospitale publikoko ratioekin.
2. Ez daukate presentzia fisikoko guardiako espezialistarik Traumatologian eta Kirurgian; presentzia fisikoko guardiakorik eta lokalizaturik ere ez Otorrinolaringologian (ORL) eta Urologian.
3. Espezialitate dezente dauzka lanaldi partzialeko espezialistekin atendituta.
4. Sarri aldatzen dira espezialistak plantilan.
5. Sendagile batzuek sendagile espezialisten lanak egiten dituzte, espezialista izan gabe.
6. Ez dago behar bezala osatuta material eta leku aldetik, izan ere, egin beharreko obrak ez dituzte egin.
7. Batzuetan, sendagile jubilatuak aritu dira lanean.
8. Langile publikoek baino lan-baldintza okerragoak dituzte.
9. Sistema informatikoa ez dator bat Osakidetzak duen sistemarekin.
10. Eta abar.

Nahiz eta klinikako langileak asko saiatu, horrelako baldintzetan nekez eman dezake eta nekez jaso daiteke kudeaketa publikoko eskualde-ospitale publiko batek duenaren antzekoa kalitatezko osasun-arreta, edo Osakidetzako osasun-sareko anbulatorio publikoek dutenaren antzekoa. Horiek nola lan egiten duten badakigu, izan ere, gutako askok urteak igaro ditugu zentro horietan lanean edo horietan ari gara oraindik ere.

• Horregatik guztiagatik, Tolosaldeko herritarrek Euskadiko gainerako eskualdeetako herritarren antzeko arreta jasotzeko, eskatzen dugu OSI Tolosaldeak honakoak izan ditzala:

- 1. KUDEAKETA PUBLIKOA IZANGO DUEN ESKUALDE-OSPITALE PUBLIKOA.**
- 2. ESPEZIALITATEETAKO ANBULATORIOA, BEHAR BEZALA HORNITUTA ETA OSATUTA.**